

Elgoibar - 1271. zenb.  
XXX. urtea - 2023-01-20



TOKIKOM

BARREN



50 urte  
lurpea  
bistaratzen

*Baserriz baserri, kantuan eta eskean*

# SANTA AGEDA BEZPERAN ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Otsailaren 4an, zapatua, 09:00etan elkartuko gara Kalegoen plazan.  
Bi taldetan banatu eta arratsaldeko 15:00ak arte jardungo dugu kantuan eta eskean,  
ondoren Aiastiako soziedadean bazkaltzeko.

Familiantzako hirugarren talde bat ere osatuko dugu.

Ordutegia: 11:30-15:00

Baserriz baserriko jarduna eta bazkaria.

Urtarrilaren 27a izango da koruetan izena emateko azken eguna:  
943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)  
Familiak izena emateko: [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus)



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Ane Astiazaran

Itzultzailea

## Perspektiba kontua



***"Oso kontuan izan behar dugu nondik hitz egiten dugun, zer hartzen dugun erreferentziatzat"***

Azkenaldiko kontua izango da agian, baina ohartu naiz kontu garrantzitsuak oso modu desberdinean ikusten, ulertzen, analizatzen eta baloratzen ditudala unearen arabera. Demagun gazteok jasaten dugun zapalkuntzari buruz ari naizela; batzuetan zapalkuntza horri aurre egiteko indarrez eta kemenez gaudela iruditzen zait, eta beste batzuetan gure geldotasun eta otzantasunaren ondorioz etorkizun beltza dugula pentsatzen dut.

Arazo bera sortzen zait euskararen egoeraren inguruan ere. Herri euskalduna-erdalduna edota egoera baikorra-panorama pesimista dikotomiak oso presente izan ohi ditut. Konturatzen naiz ez dela (beti) nire aldartea izaten bi poloen arteko balantzaren alde batera edo bestera jotzeko arrazoia; askotan perspektiba kontua izaten da.

Herri euskaldun bateko biztanleak ohituta egongo dira egunerokotasunean parekoari (ezaguna edo ezezaguna) euskaraz zuzentzera, hau da, lehen hitza gaztelaniaz edo euskaraz egingo duten zalantzan ez jartzera. Euskal Herria bere osotasunean harturik, ordea, badakigu ohikoagoak direla kontrako egoerak. Horrenbestez, herri euskaldun bateko herritar batek edo herri erdaldun bateko herritar batek euskalduna zer den definitzeko garaian, seguruenik haien definizioek ez dute bat egingo. Oso kontuan izan behar dugu nondik hitz egiten dugun, zer hartzen dugun erreferentziatzat.

Euskara hizkuntza txiki gisa daukagu gure iruditeria kolektiboan, baina oso gutxi dira munduan milioi bat hiztunetik gora duten hizkuntzak. Euskara da horietako bat. Perspektiba horrek balio digu gure burua modu batera edo bestera ikusteko, ikuspegi baikorrago bat edo pesimistago bat izateko. Gure energia hizkuntzari bultzada ematen erabili nahi dugun edo alferrikako lan gisa ikusten dugun. Beraz, geurea zer dugu, herri euskalduna ala erdalduna?

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Kamioiei, autoei, motorrei...**

Oinezkoen pasabideak eta espaloiak oinezkoak pasatzeko dira; ez zuek aparkatzeko. Hor aparkatzen baduzue, oinezkoek errepidetik joan behar dute. Eta, ez naiz ari Gabon Zahar feria egunaz, baina merezi du aipatzea egun horretan 10:00etarako autoak edozein lekutan eta edozein modutan zeudela aparkatuta, nahiz eta ordu hartan oraindik bazegoen ondo aparkatzeko lekurik. Aparkaleku bila ibiltzeko, denborarik ez, ezta?.

Abiadura-mugak, poliki joan zaitezten dira. Oinezkoentzako pasabide batean oinezko bat dagoenean, zuek zarete gelditu behar duzuenak. Herri barruan poliki joan behar duzue, bat-batean gelditu beharra izanez gero, denbora izan dezazuen, adibidez, haur bat irteten bada parketik, pilota baten atzetik korrika. Horrelakoak zilegi dira bizitegi-eremuetan; edo, ikastetxeak dauden lekuetan. Baina, jakina, haurra zurea ez denez, berdin zaizu, ezta?. Herriaren erdigunea oinezkoentzat da, eta poliki joan behar duzue. Gezurra dirudi zauritu larriak eta hildakoren bat ere egon izan denean, berdin jarraitzea. Zer gehiago gertatu behar da?

Zamalanetarako ordutegia horretarako da; zamalanetarako, eta, ez autoak goiz osoan aparkatuta egoteko, gainerako ibilgailuen eta oinezkoen bidea oztopatuz. Eta, aparkatu behar baduzue, atarrietako eta dendetako atea errespetatu behar dituzue, jendeak bai etxeetara, bai saltokietara sartzeko eta haietatik irteteko eskubidea du-eta.

Eta oinezkoak, kalea trafikoari irekita dagoenean, kale-kantoitik joan behar dugu, eta horrela, autoak erditik lehenbailehen kenduko dira. Era berean, oinezkoentzako pasabide bat zeharkatzerakoan, ez gelditu hitz egiten; hitz egin eta ibili aldi berean egin daitezke; eta sakelakoari begiratzeari utzi, mesedez. Gidariren batek akatsen bat egin dezake; eta oinezkoak galtzeko guztiak ditu.

Azkenik, galdera batzuk egin nahi dizkiot dagokionari: Noiz margotuko dira marrak eta

oinezkoen pasabideak? Asfaltatzea, nolabait esatearren, egin zuten, baina lurreko marrak falta dira leku askotan. Eta, isunak noizko? Elgoibarrek legerik gabeko hiria dirudi. Hau dena lotsagarria da.

**A.E.**

### **Santa eskeko Etxegiña taldea. Aurten bai...**

Bi urte luze izan dira kalera irten gabe, bi urte luze zuek guztiokin Elgoibarko auzo eta kaleetan egon gabe. Baina aurten bai, aurten ohitura zaharrari eutsiko diogu, eta otsailaren 4an, aurten Santa Ageda bezperarekin batera, Elgoibarko kaleetan ibiliko gara, 1925ean German Uriguenek eta berarekin lehen aldiz atera zirenek egin zuten bezala.

Luze egin zaigu pandemiak eragindako itxaronaldi hau, baina ez gara bakarrik sentitu, zuen guztion babeseta eta bultzada gurekin izan baititugu bi urte luze hauetan. Hamarnaka izan zarete gugana gerturatu zaitenak denbora honetan faltan bota gaituzuela esanez, eta aurten, berriz irtetzearekin, zuen poza azaldu diguzuenak.

Bai, 1925ean hasi genuen ohitura honek 100 urte beteko ditu aurki, eta behar bezala ospatzeko asmoa daukagu. Urtez urte, aspalditik, batzen dugun dirua Caritasi ematen diogu, eta azken 2 urte hauetan, gure ohiko jardunak etena izan badu ere, norbanakoei eta enpresei esker, Caritasentzako gure eskaintza xumea egin ahal izan dugu. Eskerrik beroenak urte hauetan lagundu diguten Alcorta eta Etxepe enpresei eta hainbat norbanakori ere, nola ez.

Baina lerro hauetan ez genituzke ahaztu nahi urtero eguna ospatzeko beren laguntza ematen diguten herriko denda eta elkarteak. Beraien laguntzarik gabe, Etxegiña taldean santa eskeko ohitura bestelakoa izango zen.

Eta, azkenik, gure eskerrik beroenak, urtero, Elgoibarko kaleetan gurekin bat egiten duzuen lagunei, tartean azken urteetan gurera batu diren Herri Eskolako eta Ikastolako neska-mutilei. Zuen babesarekin, saiatuko gara gure onena ematen eta horren gurea den ohitura hon eusten. Badakizue, beraz, otsailaren 4an, 9:00etan, Kalegoen Plazan espero zaituztegu. Eskerrik asko.

**Santa Eskeko Etxegiña Taldea**



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Santa Ana kaleko espaloia hondatuta

**dago:** "Santa Ana kaleko babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan hondatuta dago espaloia. Baranda bat jarri zuten oinezkoak ohartarazteko, baina denbora asko pasatu da eta ez dute konpontzen. Horrez gain, espaloian piboteak falta dira eta autoak espaloi gainera igotzen dira. Eskertuko genuke konponketa horiek egitea".



### Trenbide kaleko edukiontziak pilatuta

**daude:** "Trenbide kaleko igogailu ondoan dauden zabor edukiontziak elkarrengandik gertuegi daude, pilatuta, eta organikoaren edukiontzira iristea ez da erraza. Adineko asko lekua topatu ezinda ibiltzen dira".



### Gidariak ez dituzte oinezkoak

**errespetatzen:** "Espaloiak oinezkoentzat dira, eta ibilgailuek ezin dute bertan aparkatu, bestela oinezkoak errepidera irten behar gara. Zebrabideetan ere, oinezkoek lehenasuna dute, eta gidariaren betebeharra da abiadura moteltzea, oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Herri barruan gauza bera, bereziki, umeak dabiltzan inguruetan. Askok nahi dutena egiten dute, ez dago eskubiderik".



### Eskerrik asko Errege Magoen desfilea antolatu zutenei:

"Askotan ez gara konturatzen Errege Magoen desfilea moduko ekitaldien atzean dagoen lanaz. Erregeak lotu, zaldiak, partaideak, partaideentzako jantziak prestatu, eszenatokia atondu... Eta den-dena borondatez egiten dute. Eta hala eta guztiz ere, jendea kexatu egiten da. Iruditzen zait borondatezko lana gutxietsita dagoela eta jendeak ez duela baloratzen jende horrek egiten duen lana. Niri izugarria iruditu zait, eta pena emango lidake azkena izatea. Espero dut erreleboa egotea eta umeengan hainbesteko ilusioa pizten duen ekimen hau ez galtzea. Eskerrik asko orain arte egindako lan guztiagatik".



## 14.000 euro eman dizkio Elgoibarko Udalak Parrokiari, ondare historikoa zaintzeko

2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Udal Batzarrak erabaki zuen San Bartolome parrokiari 14.000 eurorainoko dirulaguntza izenduna ematea, 2022an parrokiaren ondare historiko-artistiko erlijiosoa konpontzeko, mantentzeko eta hobetzeko lanak egiteko. Orain, egindako lana justifikatu ondoren, 14.000 euroko dirulaguntza bere osotasunean ematea erabaki dute. Elgoibarko Udalak tokiko ondarea berreskuratzeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du, eta San Bartolome parrokiarekin 2023ko hitzarmena lantzen ari dela aurreratu du.



### Mendaroko KZ Guneak eta Jaurlaritzak hitzarmena berritu dute

Oinarrizko gaitasun digitaletan doan trebatzen jarraitzeko aukera izango dute mendaroarren 2023an ere, KZ Guneen sareak hitzarmena berritu baitu Jaurlaritzarekin. Udaleko hirugarren solairuan dago kokatuta KZ Gunea eta 8:00etatik 14:00etara egoten da zabalik astelehenetik barikura. Hilean behin egoten da tutorea.

### Bi langile gehiago izango dira Mendaron brigadan, peoi lanetarako

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesarekin, 16 eta 20 urte arteko bi langile kontratatu ditu Udalak herriko brigada taldea indartzeko. Langileetako bat lanaldi osora egongo da, eta bestea, lanaldi erdira. Honela, langile bat 12 hilabetez egongo da lanean eta beste bat 6 hilabetez. Mantenu eta kontserbaziorako peoiak izango dira biak. Langileen kontratazio kostua 47.402,6 eurokoa da, eta Mendaroko Udalak, Lanbidetik, 35.136,69 euro jasoko ditu laguntza eran. Gainerakoa Udalak finantzatuko du.

### Urtarrilaren 29an egingo dute Mendaroko Sendi Anaitasuna elkartekoek urteko batzar nagusia

Urtarrilaren 29ko batzarrean azkeneko hiru urteetako kontuen balantzea aurkeztuko du Sendi Anaitasunako zuzendaritza taldeak eta bazkideen zerrenda ere irakurriko dute. Batzarrera agertzen ez den bazkideak hamar euroko isuna ordaindu beharko du. Era berean, zuzendaritzarako erreleboa ere eskatuko dute. Aurten bi lagunek lagako dute zuzendaritza taldea eta ordezkioak behar dituzte. Izan ere, orain daudenak bi urterako sartu ziren zuzendaritzan eta bost urte bete dituzte.

Heriotzaren nahigabea arintzeko sortu zuten Mendaron Sendi Anaitasuna elkarteak eta 750 bat bazkide ditu gaur. 1933koa da aurkitu duten lehenengo akta, eta elkarte bitxia da, Euskal Herrian ez baita honelako besterik ezagutzen. Funtzionamendua sinplea da. Elkarteko kide bat hiltzen denean, hiletako gastuak ordaintzen ditu elkartek. Horretarako bazkide bat hiltzen den bakoitzeko 2,5 euroko kuota ordaindu behar izaten dute gainerako bazkideek (aurten, igoera planteatzeko dute). Elkarteko kide izateko ezinbestekoa da Mendaron bizi eta bertan erroldatuta egotea.

# Industria sektoreko langileek kontziliatzeko duten aukeren diagnostikoa egingo du Elgoibarko Udalak

**K**ontziliaziorako neurriak sustatuta, enpresek langile talentudunak erakartzeko edo haiei eusteko bidea izan dezaketela ondorioztatu zuen Elgoibarko Udaleko Bizikidetzeta Batzordeak, partaidetza-prozesu baten bidez, eta haren ondotik jarri du ekimen hau martxan Udalak, herriko industria-sektorea osatzen duten 140 bat enpresarekin elkarlanean. Industria sektoreko langileek kontziliatzeko dituzten baldintzen inguruko diagnostikoa egingo dute, Berdintasun Sailaren bidez. Horretarako galdetegi bat prestatu dute, langileei banatzeko. Biltzen dituzten ondorioak erakundeei aurkeztuko dizkiete gero, haien inguruan eztabaida dezaten foro ireki batean. Foro horretan enpresetako jardunbide egokien adibideak emango dituzte, eta era berean, indarrean dauden dirulaguntzei buruzko informazioa banatuko dute eta enpresen eta erakundeen esparruan egiten ari diren ekintzen berri eman ere bai.

Ane Beitia Elgoibarko alkateak esan du jakin badakitela enpresei zaila zaiela talentua duten pertsoneri eustea eta gogoratu du kontziliazio erantzukidea dela, gaur, lan bila ari diren pertsoneri gehien interesatzen zaien neurrietako bat. Hori bai, nabarmendu du kontziliazioa ikuspegi zabalago batetik ulertu behar dela eta ezin dela mugatu adingabeak edo mendekoak zaintzeko beharretara. "Frogatu da kontziliazio erantzukideko politikak aplikatzen dituzten enpresek produktibitatea handitzea, motibazioa eta lan-giroa hobetzea eta, bajak eta absentismoa murrizten dituztela eta, azken batean, talentua atxikitzen eta erakartzen dutela, eta, beraz, etorkizunerako inbertsioa direla", gehitu du.

Informazio gehiago jaso edo proiektuan parte hartu nahi duten enpresentzat Udalak posta elektronikoko bidez zabaldu du komunikazio bidea: [berdintasuna@elgoibar.eus](mailto:berdintasuna@elgoibar.eus). Izena emateko epea urtarrilaren 31n amaituko da.

## San Bizente eguna ospatuko dute domekan, hilaren 22an, Azkue auzoan



San Bizente Eguna da urtarrilaren 22a, eta ohitura duten moduan, San Bizente-San Roke ermitaren bueltan ospatuko dute Azkueko auzotarrek. *San Bizenteko hotza, neguaren bihotza* dio esaera zaharrak, tradizioaren arabera neguko hotzeta izaten delako egun hau, eta astea nola joan den ikusita ez da guztiz oker ibiliko. Domekarako ere hotza iragarri dute. San Bizente-San Roke ermitan egingo duten mezarekin hasiko dute San Bizente eguna, 10:00etan. Prozesioan aterako dute sainduaren irudia eta meza ostein, auzotarrek elkarte zabaldu eta salda eta txorizoa banatuko dituzte gerturatzen direnen artean.

## Martxora arteko programazioa aurkeztu du Mendaroko Gaztelekuak

LH5 eta LH6ko ikasleentzat sortutako aisialdi programa da Zubigazte, eta joan zen astean zabaldu zuten martxora arteko programazioaren berri. Zein egunetan zer ekintza egingo duten zabaldu dute, baina ekintza horien gaineko jakingarriak erabiltzaileei eurei jakinaraziko dizkiete eguna gerturatu ahal. Hona hemen

prestatu dituzten ekintzen egitaraua: Eskulan tailerra (urtarrilak 14), Just Dance jokoan oinarritutako saioa (urtarrilak 21), pintura akrilikoa (otsailak 11), ekintza librea (otsailak 18), Emakumeen Nazioarteko Eguna gai hartuta, hainbat ekintza (martxoak 11), eta dantza saioa (martxoak 18).

## Aitor Esteban Espainiako Kongresuko EAJren bozeramailearekin solasaldia, astelehenean

Elgoibarko EAJ-k antolatuta, Aitor Esteban Espainiako Diputatuen Kongresuko EAJ-ren bozeramailea etorriko da Elgoibarrera, astelehenean. Elkarrizketa edo solasaldi formatuan antolatu dute ekitaldia, eta herritarrek galderak egiteko aukera izango dute. Antolatzaileek eskatu dute galdera horiek aurrez bidaltzeko, solasaldia antolatu ahal izateko. [elgoibareajpnv@gipuzko.eus](mailto:elgoibareajpnv@gipuzko.eus) helbide elektronikora bidali daitezke, edo 688 825 183 zenbakira Whatsapp bidez. Solasaldia 18:30ean izango da, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.



### Nuria Guerolak irabazi du Mendaroko Gabonetako kanpainako sari nagusia, 6.135 zenbakiarekin

Mendaroko Udalak, herriko merkatariekin batera, *Zortea herrian bertan* kanpaina jarri zuen martxan Gabonetan, herritarren artean bertako establezimenduetan kontsumitzeko ohitura sustatzeko. Hamalau saltokik hartu zuten parte kanpainan, eta saltoki bakoitzean 10 sari banatu dituzte. Horrez gain, parte-hartzaile guztien artean sari nagusi bat zozkatu dute. Saritutako zenbakia honakoa da: 6.135, eta saritua Nuria Guerola da. Mendaroko koadro bat, Landa jatetxean bi lagunentzako bazkaria eta Gabonetako produktu sorta jaso ditu irabazleak. Mendaroko Udaletik eskerrak eman dizkiete kanpainan parte hartu duten herritar guztiei eta aurrerantzean ere herriko saltokietan kontsumitzera deitu dituzte.



### Urtarrilaren 28an jokatuko dute Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa, Kultur Kafean

Euskal Herriko mus txapelketa martxan da, eta Elgoibarko kanporaketak badauka data: urtarrilaren 28an jokatuko dute, Kultur Kafean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Bikote irabazleak lau ardo botila irabaziko ditu, eta bigarren sailkatuentzat bi ardo botila izango dira saria. Gainerako partaideen artean, bi ardo botila zozkatuko dituzte. Gipuzkoako finala Deban jokatuko dute martxoaren 11n, eta Euskal Herriko finala martxoaren 25ean izango da,

Zornotzan. Irabazleak garaikurra, 3.000 euro eta lau lagunentzako Karibera bidaiak irabaziko ditu. Bigarren saria, berriz, garaikurra, 1.500 euro eta bi lagunentzako Karibera bidaiak izango da. Hirugarren sailkatuak 750 euro eta lau lagunentzako asteburuko egonaldia irabaziko du, eta laugarrenak 500 euro eta euskara ikasteko urte osorako bi matrikula. Bosgarren postutik zortzigarrene arteko bikoteek 200na euro jasoko dituzte, eta hortik 16. postura artekoek 100na euro.



## || Bost urte pentsio duinen aldeko borrokara lotuta

**E**uskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bizirik eta indartsu dagoela aldarrikatu zuen astelehenean, bost urte bete dituela ospatzeko Euskal Herriko hainbat plazatan antolaturiko elkarretaratzeetan, baita Elgoibarren ere. Eguraldi makurra eginagatik, dozenaka lagun elkartu ziren Elgoibarren, herriko pentsiodunen elkarteak deitutako ekitaldira, eta musikarekin eta mokadutxo batekin ospatu zituzten orain arteko lorpenak.

2018ko urtarrilaren 15ean sortu zuten mugimendua, Fatima Bañesek, garai hartan Espainiako Gobernuako Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroa zenak pentsiodunei eskutitz bidez jakinarazi zienean pentsioetan %0,25eko igoera izango zutela. Burlatatzat hartu zuten pentsiodunek, igoerak ez zuelako KPIren igoera ere berdintzen -%1,1ekoa 2017an-, eta beraz, pentsiodunen gehiengoak eroste ahalmena galduko zuelako berriro. Geroztik pentsio duinak eta bizitzaren kostu errealarari dagozkionak eskatzen jardun dute kalean, astelehenero, eta jarraitzen dute oraindik ere Euskal Herriko 80 plazatan. Are, jarraituko dutela ere ohartarazi dute, jarraitzeko arrazoi asko daudela arrazoituta.

Gaurgeroako ordezkariak uste dute eurek sustatutako mobilizazioak eta Espainian sortutako taldeen mobilizazioak funtsezkoak izan direla 2013ko PPren pentsioen erreformaren neurri batzuk indargabetzeko. Bestek beste, %0,25ko igoeraren ordezkariaren arabera igoerak ezartzeko eta iraunkortasun faktorea delakoa bertan behera lagatzeko —etorkizuneko pentsioak batez besteko bizi itxaropenaren aurreikuspenen arabera ezartzeko modua ematen zuen horrek—. Horiek hala, aurtun %8,5eko igoera izan dutela gogoratu dute. "Galdutakoa konponduko ez duen arren, gure borrokak lortu du hori". Horren harira gehitu dute: Gutxieneko pentsioa 1.080



eurokoa izatea izan da mugimenduaren beste aldarrikapenetako bat. "2018an plazara irten ez izan bagina, 2017ko 700 euroko pentsioa 710,60 eurokoa izango zen 2023an, eta 1.000 eurokoa 1015,1ekoa", salatu dute beren aldizkarian. Horren harira, gehitu dute: "Bost urte geroago, lortutagoa ospatu nahi dugu eta ziur gaude gure bermea mobilizazioa dela, lortutakoa sendotzeko eta indarrean jarraitzen duten murrizketak eta mehatxuak iraultzeko. Gure pentsioak murrizten dituen 2011ko erreformak indarrean jarraitzen du, eta 2021eko erreforma berriak sendotu egiten ditu eta murrizketa berriak eta pentsio-planak bultzatzea ekarriko du". Mugimendutik esan dute harro daudela aberastasunaren banaketa ekitatiboaren alde sindikatu eta gizarte eragileekin batera egiteagatik eta soldatak, pentsioak eta zerbitzu publikoak "hondatzen" dituzten politika publikoak aldatzeko erreferente garrantzitsua izatearekin.

# LURRAZPIKO ONDAREA, AZALERA

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Leizarpe

**Elgoibarko Espeleologia Taldea omenduko du Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkarteak aurten, eta espeleologoek bihar jasoko dute errekonozimendua San Antonetako zigilu erakusketaren itxiera ekitaldian. 50 urte daramatzate espeleologoek Elgoibarko eta Mendaroko lurpea aztertzen, baina aztertzeaz gain, aurkikuntza horien dibulgazioan ere jardun dira denbora horretan, eta makina bat artikulu eta liburu idatzi dituzte, lurrazpikoa azaleratzeko. Hilaren 21era arte egongo da ikusgai zigilu erakusketa, Kultur Etxean.**



**E**lgoibarko lagun talde bat hasi zen 1973rako lurrazpia arakatzeko, eta urte horretan bertan eskualde honetako lurrazpiak zeukan balioaz jabetu ziren, Eibarko *Kezka* aldizkarian irakurri zuten artikulu bati esker. Itziarko Aixa kobazuloa deskubritu zuten, eta horrekin batera Debabarrenetako lurpearen aberastasuna. Orduan erabaki zuten espeleologia era metodiko eta antolatutakoan praktikatzeko. Erabaki hori hartzeaz batera konturatu ziren espeleologiari buruz zegoen informazio apurraz. *Espeleologia, el alpinismo de las profundidades* liburua eskuratu zuten, eta hura izan zen euren gida nagusia. Une hartan erabaki zuten, beraz, lurrazpia arakatu eta aztertzeaz gain, aurkikuntzen berri eman behar zutelako, eta dibulgazioa ere bere gain hartu zuten espeleologo haiek.

Espeleologiako oinarritzko teknikak erabiltzen hasi ziren kobazuloetara jaisteko, baina oinarri-oinarritzko materiala falta zuten. Ez zeukaten espeleologia praktikatzeko material aproposik, eta beraiek sortu zuten lanerako behar zuten gehiena. Arropak ere baserri munduko materiala saltzen zuten biltegi itxurako denda batean erosi zituzten: oihalezko buzoak, obretako

**Lurrazpia arakatu eta aztertzeaz gain, aurkikuntzen berri eman behar zutela erabaki zuten, eta dibulgazioaren ardura ere bere gain hartu zuen espeleologia taldeak.**

kaskoak, sokak eta karburuzko kanabilak izan ziren hastapenean erabilitako materialak. Urte hartan Aitzbeltz koban sartu ziren, eta Atxuri gaina arakatu zuten, igoera hark zituen zailtasun guztiekin. Espedizio hark erakutsi zien espeleologiarako teknikak eta materialak hobetzeko eta talde moduan eratzeko ordua iritsi zela. 1974a zen, eta Elgoibarko Espeleologia Taldea sortzeko pausoak ematen hasi ziren. Jose Manuel Tobajas, Santos Diez eta Angel Mari Tobajas Morkaiko Mendizale elkartearekin bildu ziren, eta hainbat bileraren ostean, Elgoibarko Espeleologia Taldea sortu zuten, Morkaikoren babesean. 1974an, beraz, beste fase batean sartu zen Elgoibarko espeleologia.

Ioseba Zabala, Santos Iñigo, Jesus Mari



**1982an istripua izan zuten  
Mendaroko espeleologoek,  
eta gertakari hark eraman zituen  
talde gisa eratzeraz.  
Leizarpe Espeleologia Taldea sortu zuten.**


Torres, Jokin Altuna eta Iñaki Ulazia ere batu ziren taldera, eta jende gehiagok ere parte hartu izan zuten tarteka espeleologia abenturetan. Morkaiko Espeleologia taldearen arakatze-eremua Izarraitzeko karst-a izan zen, Mendaroko Garagartzaraino iristen dena, Kilimon bailaran barrena. 80ko hamarkadan ingurune horretako sistema hidrogeologikoaren ikerketa egiteko eskatu zieten, eta hurrengo bi urteak eman zituzten lan horretan. 1983an entregatu zuten milaka datuz beteriko txostena Elgoibarko Udalean eta beste hainbat erakundetan. Hura izan zen Izarraitzeko karstekoko lurpeko urei buruzko lehenengo txosten teknikoa, eta Aranzadi Zientzia elkartearen errekonozimendua ere jaso zuten taldeak. Informazioa zabaltzearen

garrantziaz jabetuta, hitzaldiak, irteera gidatuak eta beste hainbat ekimen antolatzen hasi ziren, eta baita egunkarietan zein herrietako festetako programa liburuetan idazten ere.

#### **LEIZARPE, 1982AN**

Mendaroko espeleologia zaleak ere martxan jarriak ziren 80ko hamarkadaren hasierarako, baina ez zeuden talde gisa antolatuta. 1982an istripua izan zuten espedizioetako batean, eta gertakari hark bultzatu zituen formalki taldea sortzera. Leizarpe Espeleologia Taldea sortu zuten, eta Angel Mari Tobajas, aktibo geratzen zen Morkaiko Espeleologia Taldeko kide bakarra, Leizarpe taldera batu zen. Modu horretan, Leizarpe izenarekin jarraitu zuten aurrera, Elgoibarko eta Mendaroko espeleologia zaleek. Administrazioari bi herri bilakatu ziren urtean, espeleologikoki batu ziren Elgoibar eta Mendara. Javier Vargas, Evaristo Rodriguez, Angel Mari Tobajas, Jaime Martinez, Carlos Santamarta, Javier Bello eta Patxi Marin izan ziren Leizarpeko taldekideak.

Morkaikok lan handia egin zuen lurrazpian, baina oraindik asko zegoen arakatzeko, eta Leizarperen lehen egitekoa San Bartolome sima



## ZIGILU ERAKUSKETA



Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkartek joan zen zapatuan inauguratu zuen San Anton jaietako zigilu erakusketa, eta bihar arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean. Euskal Herriko eta Espainiako filatelikoen bildumak jarri dituzte ikusgai, eta bihar egingo diete errekonozimendua bildumagileei. Horien artean, Elgoibarko Espeleologoak ere omenduko dituzte, aurtien 50 urte beteko dituelako taldeak. 12:00etan izango da ekitaldia, baina horren aurretik, Filatelia Elkarteetako Euskal Federazioak urteko lehen batzarra egingo du Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 11:00etan.



## KONTSULTATEGIA

“**Zer erlazio dute kirolak eta aho-hortzetako osasunak?**”

Kirolariek bere aho osasunean txantxarra, bruxismoa, hortzetako traumatismoak, handitutako entziak edo hortzen sentibilitatea izateko joera handiagoa izan dezakete. Kirola egiten duten pertsonak, oso praktika osasungarria izanik, arrisku horiek pairatzeko arrisku handiagoa dute. Kirolarien txantxarra, adibidez, listua murriztearekin lotuta dago, eta horrek babes-propietateak galtzea dakar.



Zer egin dezakegu kasu horiek prebenitzeko?

- ♦ Dieta egokia mantendu, azukreen kontsumoa moderatuz eta ahoko lehertasuna prebenitzeko hidratazio on batekin lagunduz.
- ♦ Aho-higiene egokia izaten (egunean 3 aldiz hortzak eskuilatzea gomendatzen da)
- ♦ Maiz bisitatu dentista, gutxienez sei hilean behin.

### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
 iyd@dentalaldaz.com

**943 366 377**

esploratzea izan zen. Ondorengo urteak oso emankorrak izan ziren eta lan handia egin zuen Leizarpe espeleologia taldeak. Horren emaitza izan zen 1993an estreinako liburua argitaratea: *Estudio hidrogeológico del karst de Izarraitz*. Gerora etorriko ziren publikazio gehiago. Morkaikok hasitako bidetik jarraitu zuen Leizarpek ere dibulgazioan, baina berrikuntza nagusia erakusketak izan ziren. Leizarpek hasieratik nahi izan zuen Debabarreneko paisaia karstikoa ezagutzera ematea, eta, horretarako, hainbat jardunaldi espeleologiko eta argazki erakusketa antolatu zituen, Elgoibarren eta Mendaron. 2004tik aurrera, Leizarpe Espeleologia Taldeko espeleologo aktiboek Debabarrenean lanean jarraitu zuten, baina taldetik kanpo, beraien jarduerak ez zutelako zerikusirik espeleologiarekin. Informazio bilketan eta beste ikerketa batzuetan aritu ziren, eta lan horren emaitza izan zen 2013an on-line argitaratu zuten *Bajo el suelo de Elgoibar por cuevas* liburua. 2016an, Elgoibarko espeleologo beteranoenak berriro elkartu ziren Morkaiko Leizarpe Espeleologia Taldea izenarekin, orain bost hamarkada hasitako tradizio espeleologikoaren jarraipena ziurtatzeko eta dibulgazioarekin jarraitzeko. Lurpeko aberastasuna lurrazaleratzen dihardute, etenik gabe.



# BABESLEKUA, NEGU GORRIAN

  Ainara Argoitia

**Negu bete-betean ere, kale gorria dute bizitoki zenbait lagunek. Hala ere, ikusezin dira oraindik ere askorentzat. Haien gaineko aurreiritzi, estigma eta topikoak, ordea, oso zabaldua daude eta horien kontra ere egin nahi dute gure gaurko bi protagonistek. Etxe bakoei neguan aterpea emateko iaz Debabarreneko udalek martxan jarri zuten neguko aterpetxe zerbitzuan lan egiten dute, Eibarren, Karmeldarren elizaren lokaletan. Arrats elkarteak kudeatzen du gaur aterpetxea, gizarte bazterketa egoeran daudenei laguntzeko 1999an sortu zuten irabazi asmorik gabeko elkarteak.**



**B**ost minutu eskas falta dira 10:00etarako eta 6 graduko temperatura egiten duela dio autoko termometroak. Neguko aterpetxean gaua igaro duten azken bi lagunak badatoz kanpora, bizkar-zorro bana hartuta. Gaur, zorionez, hamar orduren buruan itzuli ahal izango dira eta afari beroa gertu izango dute mahaietan; zorionez, gauerako ere bost gradu azpiko hotza iragarria dagoelako eta halakoetan, alerta egunak irauin bitartean, nahi beste gau egin ditzaketelako hemen, beti ere lekua egonez gero. Baina, bestela, hilabeteen bost egunerako aterpea izango dute gehienez Eibarko aterpetxe honetan. Azken bi lagunak agurtu arren, lanak ez du etenik barruan. Nagore Cidekin, aterpetxeko arduradunarekin, dugu lotua hitzordua, baina Amaia Chinchilla eta biak daude harrera egiteko. Sartzeaz batera, kafe beroa eskaini digu Nagorek. "Hona datorrena ahal den gozoez hartzea da gure lana", zehaztu du Cidek. Bulegora eraman gaitu eta sukaldaria itzuli da Amaia. Gaur ere, hogeita lau bat lagun izango ditu mahai bueltan afaltzeko eta su ondoan ditu bi eltze handi, prest.

Karmeldarren egoitza izandakoa da gaur aterpetxe, bi solairuko eraikina. Sukaldea eta egongela, garbategia, bulegoa, takilak,

hezitzaileen logela eta beste bi logela daude, literadunak. Eskailera kiribil batean gora eginda daude gainerako logela guztiak, denak bina ohekoak eta komundunak. Erropero gisa erabiltzen duten gela ere badute, eibartarrek emandako neguko arropa eta oinetakoz betea. Korridore luzeko aterpetxea da, atsegina, era honetako aterpetxez dugun iruditerirako. Hutsa dago jendez, dena dute jasota, baina ahalegin handirik egin gabe imajina dezakegu beteta ere. "Sukaldean sortzen da etxe giro hori bereziki, mahaira batutakoan; sukaldea bertan izateak eta sukaldarien lanak ematen diote honi etxe batek izan dezakeen goxotasun hori", aipatu du Nagorek. Mahai luze bat erdian, eserlekuak, mahai-jokoak apalategian, telebista eta terrazarako atea ikusi ditugu jangelan. "Terrazara irteten dira erre nahi dutenak". Altzariak-eta berritu dituzte, baina espazioaren banaketan alde gutxi igarriko du Karmeldarren egoitza ezagutu zuenak. Doan laga zuten espazioa karmeldarrek, gizarte bazterketa egoeran daudenei neguko hilabeteetan babesleku bat izan zezaten gauean, udalek finantzatu zuten egokitzeapena eta Arrats elkarteko hezitzaile eta sukalariek gehitu diote gainerakoa: gizatasuna.

## NAGORE CID ALZIBAR

Eibarko neguko aterpetxeako arduraduna



*“Zaila zaie egoera honetatik irtetea, gehienek horixe nahi duten arren”*

32 urte dauzka eta elgoibartarra da Nagore Cid Alzibar. Bera da Eibarko neguko aterpetxeako arduraduna. Gizarte Hezkuntzako gradua ikasi zuen eta bigarren urtea du hau aterpetxean.

### **Egiguzu zure buruaren aurkezpen bat, Nagore.**

Gizarte Hezkuntzako gradua ikasi nuen eta nerabeentzako etxeetan jardun nintzen lanean, harik eta konfinamendua iritsi zen arte. Etxera lotu gintuztenean, kalean bizi zirenak ere aterpetxeetan ixtera behartu zituzten eta urgentziako aterpetxe asko zabaldu zituen administrazioak han-hemen. Horieta bat Atano frontoian, Donostian. Han egin nuen lan. Aurrez sekula ez nuen planteatu kalean bizi zen jendearekin lan egitea, baina gustura egon nintzen han, gorabehera batzuk izan genituen arren. Konfinamendua amaitu zenean, pisuetara itzuli nintzen, kalean bizi zirenentzat Eusko Jaurlaritzak sortu zuen Lehen Urratsa proiektuaren barruan. Bi urtez egon nintzen han eta aukera hau sortu zitzaidan gero. Iaz, abenduaren 1ean, zabaldu genuen neguko aterpetxea; Eibarko Udalak kudeatu zuen, eta lau hilabetez eman genuen zerbitzua. Aurten, baina, lehiaketara atera du Eibarko Udalak honen kudeaketa eta Arrats elkarteak hartu du ardura hori. Sei hilabetez izango dugu neguko aterpetxea zabalik. Gustura dihardut hemen lanean.

**Atanon lanean jardun zinen sasoiara egingo dugu atzera, etxeko itxialdiaren garaira. Pentsatzekoa da kalean bizi denak babesleku bat nahiko duela, baina behartuta aterpetuko zutenik ere izango zen han ere. Nola konpondu zineten zuek?**

Oso egoera gogorak bizi izan genituen Atanon. Beharraren arabera zabaldu zituzten Donostian aterpetxeak eta ireki zuten azkena izan zen Atanokoa. 80 bat lagun izan genituen, asko, eta instalakuntzak ere ez ziren egokienak. Ez dugu ahaztu behar egoera hark ustekabeen hartu gintuela guztiok ere, eta ahal zen moduan egokitu behar izan ginela egoerara. Batzuek eskertu zuten han egotea, baina ez denek. Baziren bizimodua kalean bilatu nahi zutenak ere. Adikzioak zituzten askok eta behar ugari, eta saiatu ginen genituen baliabideekin ahal genuen ondoen kudeatzen dena. Eskolan lau urtean baino gehiago ikasi nuen han, egia esan. Ordura arte nerabeekin aritu nintzen eta alde handia igarri nuen. Nerabeak bizitzen ikasten ari dira, eta askotan sentitzen dugu ikaste-prozesu horretan pautak jarri diezazkiekegula guk,

*"Hogeita lau plaza dauzkagu guztira,  
horietatik 14 arruntak,  
eta hilabetean, gehienez bost gau  
igaro ditzakete hemen  
egoera normalean"*



bizi-eskarmentu handiagoa dugulako. Kanean bizi diren gehienak, baina, ni baino nagusiagoak dira eta askotan sentitzen dut nik ikasi behar dudala haiengandik, zailduagoak daudelako.

**Neguko aterpetxean gaude. Nola lan egiten duzue hemen? Zer egin behar du hona etorri nahi duen etxegabeak?**

Urriaren 15ean zabaldu genuen aterpetxea eta sei hilabetez izango dugu zabalik aurten. Bi bide dituzte hona etortzeko. Bat da Eibarko Udaltzaingora joatea 08:00etatik 19:30ak bitartean eta plaza erreserbatzea gauerako, eta bestea da 20:00etatik 20:30era hona etortzea zuzenean, eta lekua baldin badago, sartzea. Egunero bidaltzen dugu guk oharra Udaltzaingora goizean goiz, gauerako zenbat plaza libre ditugun zehaztuz. Guztira 24 plaza dauzkagu: plaza arruntak dira hamalau, eta hilean gehienez bost gau pasa ditzakete hemen. Horrez gain, eguraldi txarragatik alerta egoera ezarria dagoenean edo gau hortan bost gradu baino gutxiago egingo duela aurreikusten denean, sei plaza gehiago eskaintzen ditugu. Alerta egunetako egonaldiak, gainera, ez dira kontatzen [Euskalmet da erreferentzia]. Eta beste lau plaza ere baditugu, egonaldi ertain edo luzerako. Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako laguntzat dira horiek, Debabarrenean erroldatutakoentzat. Edozein kasutan, plaza hartu eta erabiltzen ez baldin badute, galdu egiten dute, beti ere ez datozela abisatzen ez baldin badute.



**Errolda aipatu duzu. Erroldatuta egon arren, kale gorrian bizitzea zer den badakienik ere bada hortaz.**

Bai, asko. Hona iristen direnen erroldak fiktizioak izaten dira gehienetan. Ez dugu ahaztu behar nortasun agiria ateratzeko, Lanbiden izena emateko edo beste tramite gehienetarako erroldatuta egotea ezinbestekoa dela, eta horregatik, gehienek badute errolda-helbide bat, bitzikirik izan ez arren. Iaz, esaterako, hona





etorri zirenen %74 erroldatuta zeuden, eta beste %26, ez. Erroldarik ez izatea larria da, traba handia delako pertsona horien gizarteratzerako. Erroldarik ezean, ezin dituzte zerbitzu batzuk jaso, eta horrenbestez, haien oinarrizko eskubide batzuk ez dira betetzen.

### **Zeintzuk dira hona sartzeko baldintzak?**

Adinez nagusi izatea; eguneroko bizitzako jardueretarako ospitaleratu beharrik ez izatea edo hirugarren pertsonetikiko mende ez egotea eta ezin fisiko edo psikikorik ez izatea; drogen eraginpean ez egotea, eta aurrez sarrera debekatu ez izana hemen. Hala ere, exigentzia apaleko zerbitzua da hau; hau da, arautegi bat badugu, baina ez diegu asko exijitzen eta ez diegu aparteko jarraipenik egiten hona sartzeko. Hemen ez dute tabakoa ez denik kontsumitzen, baina sarri etortzen dira kalean kontsumituta eta geuk baloratzen dugu sarrera emateko moduan gauden edo ez. Ez dugu ahaztu behar hemen 24 lagun batu daitezkeela eta kontsumo handiarekin baldin badatoz arazoak sor daitezkeela. Erretzeko, sukalde ondoan dugun terrazaxora irten behar dira.

### **Eta adikzioa bera, droga menpekotasuna, ez al da muga fisiko eta psikiko bat askotan?**

Izan daiteke, baina muga aipatzen dugunean, psikiatrian sartzeko beharra dutenez edo jateko, dutatzeko edo oinarrizko beste beharrak egiteko mendekotasuna dutenez ari gara.

### **Zer eskaintzen diezue hemen?**

Ostatua, mantenua (afaria eta gosaria), dutatzeko aukera eta higiene pertsonalerako oinarrizko produktuak, barruko arropa, eta beren arropa garbitzeko aukera. Egunean bost lagunek jarri dezakete garbigailua eta horretarako izena eman behar dute. Bizi egin behar da honela ere, eta berriak direnei berehala igartzen zaie, baina badaude urteak daramatzatenak egoera honetan. Gehienak azkar batean sartzen dira dinamikan. Hala ere, gehienek nahiko luketena egoera honetatik irtetea da, eta hori oso zaila dute, egia esan. Hemen, argi esaten diegu arauak bete ezean kanporatu egingo ditugula, baina saiatzen gara, zerbait gertatuz gero, gertatu den hori pertsonaren momentuko egoeraren arabera baloratzen. Aterpetxea 20:00etan zabaltzen dugu eta 20:30ean itxi, eta orduan hasten gara afaria zerbitzatzen. 23:00etan denek egon behar

dute ohean, 7:00ak arte. Tarte horretan oso garrantzitsua da isiltasuna, atsedean hartzea delako hemengo helburua. Biharamunean, 10:00etarako laga behar izaten dute aterpetxea. Gosalduta joaten dira. Era berean, aurten, astearte eta ostegunetan, erropero zerbitzua ere eskaintzen dugu, 8:00etatik 10:00etara. Neguko arropa eskatu genien eibartarrei eta haiek emandakoarekin osatu dugu erroperoa. Izugarria izan da herritarrek eman duten erantzuna.

### **Amaia eta biok zaudete orain. Zenbat lagunek lan egiten duzue, baina, hemen?**

Seik. Elena eta Amaia Chinchilla sukaldariak eta lau hezitzailek: Marina Berreondo, Jone San Ildefonso, Marta Loes, eta ni. Txandaka egiten dugu lan.

### **Erabiltzaileen datuei erreparatuta ikus dezakegu gehienak gizonak direla; aldiz, zaintza-lanetan, denok zarete emakumeak. Errealitate hori topatu duzu ibili zaren beste lekuetan ere?**

Ikasten ari nintzela ere nabarmena zen aldea. Gehienak emakumezkoak ginen. Bistan da zaintza-lanak oso feminizatuta daudela, nahiz eta gero eta gizon gehiago ari diren sartzen. Egia da, gainera, perfil honetako erabiltzaileak dauden lekuetarako beti gizonak eskatzen dituztela; indarraren ikuspuntutik egindako eskaera izaten da. Hala ere, gu iaztik gaude hemen, oso pozik, eta ikusten dugu gaitasuna dugula planteatzen zaigun edozein egoerari aurre egiteko.

### **Aurreiritziak dira, baina izango zen seguru beldurretik aritu zaizunik zeuri ere, ala?**

Bai, baina emakume izateagatik baino gehiago gauetan pertsona bakarra gelditzen delako hemen zaintza lanetarako. Halako lekuetan ratioak handiak izaten dira, eta egia da normalean bi lagun izaten direla lan horretarako.

### **Kalean bizi direnen inguruan izan ohi ditugun**

*"Exigentzia apaleko zerbitzua da hau; hau da, arautegi bat badugu, baina ez diegu asko exijitzen eta ez diegu aparteko jarraipenik egiten hona sartzeko"*

**aurreiritziak asko dira. Zein da zabalduena? Kale gorrian gelditzera eramateko arrazoien inguruan zer da hemen ikusten duzuen?**

Zabalduena, beharbada, adikzioak bultzatu ohi dituela egoera horretara, baina arrazoiak asko izan daitezke eta garbi izan behar dugu edozeinek bukatu dezakeela kalean. Guk, halere, ez diegu hemen arrazoien inguruan galdetzen. Batzuek kontaktzen dute, baina harrera egitean hori ez dugu erregistratzen, hemen egotearen arrazoiak ez bada behintzat beste zentro batetik bota dutela. Ahalik eta harrera gozoena egitea da gure lana, eta hemen dauden momentuan behar dituzten zerbitzuen inguruko informazioa ematea. Ez dugu galdetzen zerk eraman dituen egoera horretara, eta ezta zenbat denbora daramaten ere kalean bizitzen. Izaten ditugu, kalean gelditu berri direnak, beste aterpetxe batetik datozenak edota gure herrialdera iritsi berri direnak eta nora jo ez dutenak. Ez dago harrera plan egokirik ere. Errefuxiatuak, familian datozenean, artatzen dituzte, baina bakarrik iristen diren asko ere badaude, eta nora jo ez dakitela ibiltzen dira. Askoren sufrimendua saihestuko genuke harrera plan on batekin.

**Iazko memoria aurtengo datuekin alderatuta erraz antzeman daiteke erabiltzaile kopuruan igoera bat.**

Guri ere horrek deitu digu arreta. Ez dakit den kalean jende gehiago dagoelako edo den erreferentzialtasun bat lortu dugulako balizko erabiltzaile izan daitezkeenen artean; ziurrenik hori ere izango zen, geuri ere erabiltzaileek eman digutelako zabaldu berri duten beste aterpetxe baten berri. Iaz, 97 gizon, 7 emakume eta bitarra ez den lagun bat pasatu ziren hemendik; guztira, 101. Horietatik erdiak inguruk 46-65 urte bitartean

*"Iaz, 101 pertsona pasatu ziren hemendik. Aurten, dagoeneko 102 erabiltzaile izan ditugu urriaren 15etik eta beste hiru hilabetez izango dugu aterpetxea zabalik"*

zituzten. Badakigu etorri zirenen %73 kale gorritik edo beste aterpetxeren batetik iritsi zirela hona eta jatorriz Espainiako estatukoak zirela erdiak inguru. Gainerakoen artean, %35ek Europako Batasuneko herrialdeetatik kanpoko nazionalitatea zuten. Aurten, berriz, dagoeneko 102 erabiltzaile izan ditugu urriaren 15etik gaur arte, eta beste hiru hilabetez izango dugu aterpetxea zabalik. Hilabeteen egin ditzaketen bost gauak beteta, asko itzuli egiten dira hurrengo hilabeteen.

**Askotan uste da migratzaileak gizonezko gazteak izaten direla gehienbat, baina azterketek erakutsi dute immigrazioaren feminizazioa badagoela eta jatorriko estatuaren arabera feminizazio hori handiagoa dela. Zer diozu?**

Datuak eskuan hartuta hitz egitea gustatzen zait, baina esan diezadakezuna da emakumea saiatuko dela edozer egiten kalean gelditu aurretik. Nik ikusi dudana, kalean bizi diren emakumeen egoera edo oso kronifikatutakoa da edo oso arazo larriak ditu emakume horrek. Eta esango dizut gehiago, eta hau hipotesia baino ez da. Hona iristen diren emakume asko zaintza-lanetara etortzen dira eta gizon askok baino azkarrago topatzen dute lana eta bizimodua, zaintza-lanak emakumei oso lotuta daudelako oraindik ere.



*“Egunak  
ordu asko ditu  
kalean egoteko  
eta gogorra  
egiten zait  
10:00etan alde  
egiten ikustea”*



## AMAIA CHINCHILLA

Aterpetxeko sukaldaria

**Amaia Chinchilla Agirrek hainbat urtez egin zuen lan Elgoibarko Iriondo tabernan, baina iaiztik neguko aterpetxean dihardu, sukaldari lanetan.**

**Zer da zuretzat kalean bizi direnentzako otordu beroa prestatzea?**

Izugarri betetzen nau hemen lan egiteak; zoriotsu naiz hemen, nire aletxoak jartzen. 08:00etan hasten naiz gosariak zerbitzatzeko, eta sentitzen dut asko eskertzen didatela egiten dudana. Asko laguntzen didate beraiek ere.

**Zerk ikasi duzu hemen?**

Aurreiritzi asko nituela nik neuk ere. Hemen hasi nintzenetik jabetu naiz asko okerrak zirela. Ikusi dut ezer jakin gabe epaitzen dugula jendea askotan. 20:00etan sartzen dira hona eta 22:00ak arte egoten naiz ni eurekin, sukalde edo jangela bueltan. Harreman handia egiteko tarte handirik ez dugu izaten, goiz oheratzen direlako gehienak, oso nekatuta egoten direlako, baina beti sortzen da aukera hitz egiteko. Telebista ikusten dugu, egunerokoak hitz egiten dugu... psikologia ere oso lotuta dago gure lanarekin

eta saiatzen gara ahal duguna egiten. Nik uste dut hitz egitea dela gehien eskertzen dutena. Nik ez diet euren bizitzaz galdetzen, baina badira gurekin barrua askatzen dutenak. Iaztik ezagunak ditut batzuk, iaz 45 alerta egun izan genituelako eta sarri ikusi nituelako batzuk. Orain ere ikusten ditut kalean eta hartu izan dut haietako batzuekin kafea ere. Izugarri eskertzen dute kalean norbaitek eurei kasu egitea. Uste dute hau gure lana dela eta hemen egin beharra dugulako egiten diegula kasu, baina kalean ere gelditzen garenean haiekin, harritu egiten dira. Ez daude ohituta horretara.

**Kalean ikusten dituzula diozu. Kalean askotan bihurtzen ditugu ikusezin. Hona iritsi aurretik ikusten al zenituen?**

Ez gaude ohituta eta gogorra egiten zaigu, egia da, baina nik beti izan dut sentsibilitate hori, beharbada Atzegiko boluntarioa ere banaizelako [Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte] eta badakigulako baztertua izatea zer den. Iaz, lanaldia bukatzen nuenean, askotan joaten nintzen etxera kalean nola ibiliko ziren edo non babestuko ziren galdezka. Aurten, barneratuago daukat hau horrela dela, baina egunak ordu asko ditu kalean egoteko eta oraindik ere gogorra egiten zait 10:00etan hemendik alde egiten ikustea. Batzuk liburutegira joaten dira hemendik, epeletan egoteko; eguneko zentrorik ere ez dago hauentzat.

## Otsailaren 4an irtengo dira kantura eta eskera Elgoibarko eta Mendaroko santa eskeko taldeak



Zapatua egokitu da aurten Santa Ageda bezpera, eta, hala, egunean bertan, otsailaren 4an, irtengo dira kantura Mendaron eta Elgoibarren eskekoak. Elgoibarko Izarra da bezpera egunez kantatzeko tradizio horri urteetan eutsi dion bakarra, Mendaroko taldekoak eta Etxegiñakoak Santa Ageda egunetik gertuen jausten den zapatuan irten izan direlako azkenengo urte askoan, baina aurten, haiek ere bezperaz egingo dute eske-errenda.

### MENDARO

8:30ean batuko dira santa eskekoak udaletxeko atarian eta hiru taldetan banatuta Sahatzu mendiko, Garagartzako eta Mendarozabalgo baserriak koplaturiko dituzte lehenengo, eta ondoren, kalea. 15:00ak alderako bukatzea aurreikusten dute, eta gero, ohitura duten legez, Aizpen batuko dira, bazkaltzeko.

### ETXEGINA

Elgoibarko Etxegina Taldekoak Kalegoen plazan elkartuko dira, 9:00etan, eta handik abiatuko dira kalez kale kantura. 1925Ean irten ziren estreinakoz kalera German Uribe eta haren ondora batu zirenak, eta urteetan, Caritasentzat izan da santa-eskean batu duten dirua; hala izango da aurten ere. Azkeneko bi urteetan etena egin dute ezinbestean,

pandemiagatik, baina hala ere, Alcorta eta Etxepe enpresei eta hainbat norbanakoren ekarpenari esker Caritasek beti jaso du diru bat, gizarte bazterketa egoeran daudenentzat. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete santa eskerako laguntza ematen dieten guztiei eta jakinarazi dute, aurten ere entsegu egunak lotu dituztela. Urtarrilaren 31n (martitzena) eta otsailaren 2an (eguna) batuko dira, Kultur Etxeko Sotoan, 20:00etan.

### ELGOIBARKO IZARRA

1994an berreskuratu zuen Elgoibarko Izarrak baserriz baserri kantuan eta eskean jarduteko ohitura zaharra, eta eusten diote horri. Aurten, 9:00etan elkartuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta, baserri-auzoetara abiatuko dira. 15:00ak aldera arte jardungo dira eskean eta kantuan, eta Aiastiako elkartera joango dira gero bazkaltzera. Elgoibarko Izarraren koruetan parte hartu nahi duenak izena eman behar du urtarrilaren 27a baino lehen, Elgoibarko Izarrara deituta (943 741 626). E-mailez ere eman daiteke izena, baina, [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) e-postara idatzita, bai eta Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturgunean daukan lokalera etorrita ere.

Familientzako hirugarren talde bat ere osatuko dute. 11:30ean batuko dira Kalegoen plazan eta 15:00ak arte jardungo dute kantuan baserri auzoetan. Ondoren, denek elkarrekin bazkalduko dute. Izena emateko: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

## Euritan joan da San Anton Eguna



**H**otz eta euritsu esnatu zen martitzena, eta ondorioz, aldaketak izan zituen Udalak San Anton Egunerako antolatuta zituen egitarauak. Haurrentzako puzgarriak Sigman jarri zituzten goizez eta arratsaldez, eta hura izan zen etxeko txikienen bilgune. Eguerdian, Emudafek antolatuta Tiktara taldeak kontzertua eman zuen Herriko Antzokian. Bederatzi musikari igo ziren

oholtzara, eta munduko erritmo eta melodia ezberdinak jo zituzten, euskarazko letrekin. Euri jasaren ondorioz, arratsalderako iragarrita zegoen erraldoi eta buruhandien kalejira bertan behera laga zuten. San Anton Egunaren bueltako ekitaldiak bihar bukatuko dira, Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak antolatutako zigilu erakusketako partaideen omenaldiarekin.

**Sarrera gutxi batzuk geratzen dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazozen gaurko emanaldietarako**

**Yllana taldeak 'Trash' antzezlanaren taularatuko du gaur zortzi Herriko Antzokian**



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Urteak bete, abenturak bizi* ikuskizun berriaren bi saio eskainiko dituzte gaur arratsaldean Elgoibarko Herriko Antzokian, eta oraindik badago sarrerak erosteko aukera. 17:00etako saiorako sarrera gutxi batzuk besterik ez dira geratzen, baina 19:00etako saiorako oraindik badago aukera. [Herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean eros daitezke, eta bestela, txarteldegian bertan.

Perkusioa, umorea eta birziklapena uztartzen ditu Yllana eta Tothem taldeek elkarlanean sortu duten Trash antzerkiak. Zabortegei bateko lau langile dira obrako protagonistak. Beraiengana iristen diren hondakinei beste bizitza bat ematen saiatuko dira, ikusleak birziklapenari buruzko hausnarketa egitera bultzatuz. Hilaren 27an izango da emanaldia, 19:00etan, Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)

## 'Irabaziak eta galerak' estudioko lana kaleratu du Muzak taldeak

Muzak musika taldeak estudioko bigarren lana argitaratu du: *Irabaziak eta galerak* (Gaztain Estudioak, 2023). Lau kantaz osatuta dagoen lana da. Zestoako Gaztain Estudioetan grabatu dute eta tartean, kolaborazio berezi bat izan dute, Etxekalte taldeko Unai Irisarri abeslariarena. Grabaketa 2022ko urri amaieran bukatu bazuten ere, urtarrilaren 11n ikusi zuen diskoak argia. Estilo aldetik, aurreko proiektuko rock alternatibo-progresiboaren ildotik jarraitu dute, metal kutsuari eta ahots melodikoari eutsiz eta, beste behin ere, bakoitzak bere instrumentua —bai sormen, bai teknika aldetik— aski fin landuz, *power trio* etiketaren ordezkari bikainak direla erakutsiz. Kanta guztiak plataforma digitaletan daude jada.

Muzak taldea Joanes Iñurrieta soraluzearrak eta Ruben Irigoyen elgoibartarrak sortu zuten,



Eibarko Legarreko lokaletan. Aitor Sagarmendi baxu-jolea taldera gehitu eta gutxira estreinako diskoa kaleratu zuten: *Programaturik* (Gaztain Estudioak, 2021).

### Elgoibarko dantzariak Legazpiko Aurreku Txapelketan hartu dute parte



Joan zen asteburuan hasi zen Gazteen Aurreku Txapelketako Liga Legazpin, eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak ere hartu zuten parte. 7tik 15 urtera arteko gazteak izan ziren protagonista, eta horien artean, Elgoibarko Uxue Cabrera, Sare Meabebasterretxea eta Irene Toledano. Dantza eskolako arduradunek esandakoaren arabera, maila ona eman zuten hirurek, eta egindako lanarekin pozik itzuli dira. Hurrengo kanporaketa otsailaren 5ean jokatu dute Villabonan, eta bigarren saio horretan Haizea Luluaga, Unax Ansola eta Elaia Etxaniz izango dira Elgoibarko ordezkariak.

### Mendaroko euskara eskoletan izena emateko azken eguna da gaur

Euskara eskolek iaz izan zuten harrera eta gurasoetako batzuek agertu zuten interesa ikusita, aurten ere Mendaron bertan euskara ikasteko aukera sortu dute Mendaroko Udalak, UEMak, Euskara Taldeak eta Arno Guraso Elkarteak, elkarlanean. Ekainera arteko ikastaroa izango da, eta eskolak astelehen eta asteazkenetan izango dira, 14:30etik 16:30era.

Gehienez hamabi lagunentzako lekua egongo da, eta izena emandakoen hurrenkeraren arabera osatuko dute taldea. Prezioa 20 eurokoa izango da. Gaur da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago: 943 033 282 / [berdintasuna@mendaro.eus](mailto:berdintasuna@mendaro.eus). Mendaroko Udalak dirulaguntzak banatuko ditu euskara ikasi nahi dutenentzat.

## C.D. Elgoibar: zuzendaritzarik gabe eta gutxieneko zerbitzuetan



2016tik Club Deportivo Elgoibar kirol taldea gidatu duen zuzendaritzak amaitutzat eman du bere jarduna. Halaxe jakinarazi zieten bazkideei joan den urtarrilaren 12an Kultur Etxean egin zuten ezohiko batzarrean. Aurreratua zuten eta bete egin dute. Jon Basurtok eta Iñigo Palominok eman zien berria bazkideei, eta aurrerantzean eurek ere bazkide arrunt izango zirela argitu zieten. "Urtebete baino gehiago pasatu da bagindoazela jakinarazi genuenetik, eta orain dela urte erdi jarri genion muga gure agintaldiari: abenduaren 31n, hain justu ere". Tarte honetan zuzendaritzako ardurak hartzeko prest dagoen inor agertu ez denez, klubaren funtzionamendua ez dela ohikoa izango ohartarazi zieten bazkideei, bai eta nola eta zertan igarriko den azaldu ere. "Nolabait esatearren gutxieneko zerbitzuak emango ditugu aurrerantzean. Behar-beharrezko zereginiei bakarrik eutsiko diegu guk biok, denbora jakin batean bakarrik, eta nahi dugu argi gera dadila: klubeko bazkide modura jardungo gara horretan. Partiden ordutegiak antolatzea, entrenatzaileei ordaintzea, bazkideei kuota kobratzea eta fakturak ordaintzea izango dira gure gain hartuko ditugun zereginak". Orain arte betetzen zituzten beste hainbat lan egin gabe geldituko dira: besteak beste, errifen salmenta, partiden berri ematen duten kartelak egin eta herrian zehar jartzea eta partida egunetan

Mintxetako sarrera kontrolatzen egotea. Klubak kudeatzen dituen sare sozialetako jarduna ere nabarmen murriztuko dela argitu zuten. Horiez gain, Haundik eta senior emakumezkoen talde nagusiak kanpoan jokatuko dituzten partidetarako bakarrik antolatuko dituzte autobusak. Gainerako taldeetako gurasoek euren kabuz moldatu beharko dute jokariak garraiatzeko. Taldeko arroparen ingurukoak kudeatzeari ere laga egingo diote. Egoera honek kirol taldeari ekar diezaiokeen kalteez hausnartzeko eskatu zieten bazkideei Basurtok eta Palominok, eta ardurak hartzera dei egin zieten taldeko bazkideei eta gurasoei. "2023-2024 denboraldirako prestaketak datorren asteetan hastea komeni da: taldeak osatu eta entrenatzaileak lotu, besteak beste, eta guk ez ditugu gure gain hartuko zeregin horiek. Berrito ere bazkide guztiei dei egiten diegu, pausoa eman eta klubera haize berriak ekarriko dituen zuzendaritza talde berri bat osa dezaten. Zuzendaritzan egin ditugun zazpi urteotan gauzak hobetzeko iradokizun ugari jaso ditugu. Gauzak hobetu eta egiteko moduak berri nahi dituzten guzti horientzako unea da orain, pauso bat aurrera eman eta C.D. Elgoibarri tira egiteko ardurak hartzera gonbidatu nahi ditugu. Aurkezten direnek alboan izango gaituzte etapa berriari hasiera emateko, trantsizioa ahal den eta eraginkorra eta antolatua izan dadin".

## Mendira eta sagardotegira, Morkaikorekin

**M**endia eta sagardotegia uztartuko ditu Morkaiko mendi taldeak urtero antolatzen duen irteerak. Aurtengo irteera Eibarko Klub Deportibo mendi taldearekin elkarlanean antolatu dute eta otsailaren 25ean izango da. 8:00etan irtengo da autobusa Eibartik, Ego Gaietik eta 8:15ean jasoko ditu Elgoibartarrak King-Kongeko autobus geltokitik. Autobusez Pagoeta natura parkeraino joango dira eta han egingo dute mendi-ibilaldia goiz partean. Iturraran parketxetik abiatu eta bidean gora, Agorregitik eta Aiatik pasatu ostean honako tontorretara igoko dira: Olarteta (714 m), Murugil (717 m), Pagoeta (676 m) eta Urruztume (678 m). Tontorrez tontor ibili ostean, itsas mailara, Zarautzeraino, jaitsiko dira. Hamalau kilometroko ibilbidea izango da. Nahi duenak dutxatzeko aukera izango du Zarauzko Aritzabalde kiroldegian. Zarauztik Itziarrera joango dira gero autobusez, Txindurri iturri sagardotegian bazkaltzera. Honakoa izango da menua: txistorra, bakailao tortilla, bakailaoa piperrekin, sahieskia, txuleta, Idiazabal gazta irasagar eta intxaurrekin, ogia, ura eta sagardoa. Bazkideentzako prezioa 53 eurokoa izango da (63 eurokoa bazkide ez direnentzat). Prezioan sartzen dira autobusa, bazkaria eta dutxa. Irteerarako izena emateko azken eguna otsailaren 15a izango da. Online eman behar da izena *morkaiko.eus* webgunean.



### Xoxotera irteera, domekan

Herri Eskola eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean antolatzen dituen beste mendi irteera bat antolatu du Morkaiko mendi taldeak domekarako, urtarrilaren 22rako. Xoxotera igoko dira. Mintxetako aparkalekuan jarri dute elkartzeko hitzordua, 9:30ean. Mintxetatik, autoz, Aittolako aparkalekura arte joango dira, eta handik hasiko dira oinez. "Guretzat oso ezaguna den arren, Xoxote beti da leku eder bat igande goiz polit bat igarotzeko. Ikuspegi eta paraje ederrak dituen mendia da", azaldu dute.

### Jose Gurrutxaga krosean izena emateko epea, zabalik



Martxoaren 26an jokatu dute Elgoibar Ikastolak antolatzen duen Jose Gurrutxaga krosa. Ohi duten moduan, adinka eta sexuka banatuko dituzte haurrak korrikarako, eta hamalau lasterketa izango dira guztira. Eskola umeez ikastxeetan eman ahal izango dute izena, baina 16 urtetik gorakoek *elgoibarikastola.eus* webgunean eman beharko dute izena, urtarrilaren 27a baino lehenago. Antolatzaileek ohartarazi dute egunean bertan ez dela izena emateko aukerarik egongo, eta alde zuzenetik izena ematen dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dutela.



## San Anton txapelketa: Arrillagak irabazi du lau t'erdiko finala eta Elola-Lizeaga eta Amiano-Loza gailendu dira bikoteka



Urtarrilaren 13an jokatu zituzten Lagunak pilota eskolak antolatzen duen San Anton pilota txapelketako hiru finalak. Gizonen bikotekako lehiaren 30. edizioa izan da aurtengoa eta estreinakoz jokatu dute emakumeen lau t'erdiko txapelketa. Miriam Arrillaga aginagarra eta Maddalen Etxegarai oñatiarra kantxaratu ziren lehenik, emakumeen lau t'erdiko finala jokatzerara, eta Arrillagak garaipen argia eskuratu zuen 22-12 irabazita. Promesa mailako finalak hasiera ikusgarria eta parekatua eduki zuen, baina hamarna berdinduta egon ostean, Unai Amianok (Aurrera Tolosa) eta Carmelo Lozak (Barberito) osatutako bikotea nagusitu zen eta 22-12 irabazi zieten Beñat Zubizarretari (Lapke) eta Eneko Belokiri (Gazteleku). Senior mailako finalak denetik eduki zuen. Nor baino nor aritu ziren lau pilotariak, baina Ander Murua eta Antton Apezetxea 8-6 aurretik jarri zituen tantoak baldintzatu zuen partida. Tanto horretan, Iñaki Elola aurrelari bidaniarrak min hartu zuen eskuin oineko orkatilan. Partida bertan behera laga zezakeela ere ematen zuen arren, jarraitzea erabaki zuen, minez ari zela ageri-agerikoa zen arren. Elolak arrisku handiagoak hartzea erabaki zuen, eta zirt edo zart taktikak ongi funtzionatu zion. Lizeagaren laguntzarekin 19na berdindu zuten partida eta hogeina berdinduta egon ostean, 22-20 irabazi zuten finala.



**LANA**

**Eskaerak**

Klase partikularrak emango nituzke, edozein arlotakoak, LH mailan. **630 915 031**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. **685 724 861**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **612 294 738**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **641 739 472**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauzez eta asteburuetan ere bai. **631 212 497**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. **613 819 233**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulua daukat. **626 490 986**

Arratsaldetan, 17:00etatik aurrera, etxean eskola errefortzuak emateko prest nago LHko eta DBHko ikasleentzat (hizkuntzetan eta ikasi beharreko ikasgaietan). **666 667 183**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Zaintzarako behar diren agiri guztiak ditut. **643 071 900**

**ETXEBIZITZA**

Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Elgoibar inguruan. **688 642 761**


Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **943 740 331 / 643 305 876**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ .  
Bestelakoak: 10€.  
Iragarkia erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.  
Iragarkia erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Eraikin zahar batean bizi naiz. Obra egin berri dut etxean eta besteak beste trenkada (tabike) batzuk bota ditut, tekniko baten aholkularitzarekin. Obrak iraun duen denboran kontu handiz ibili gara eraikinaren estrukturarri ez eragiteko, egurrezkoa delako. Hala ere, goiko bizilagunari arrakala batzuk agertu zaizkio etxean, eta konpontzeko eskatu dit. Konpontzeko betebeharra ote daukadan jakin nahiko nuke.</b></p> <p>Eraikin zaharretan normala da proiektua egin zuen arkitektoak egindako estrukturan prebisioa gainditzea. Normala da bere garaian proiektua egin zuenak zehaztu zituen oinarrietan ez beste batzuen gain jaustea karga. Horregatik, trenkadak bota eta karga habeen gain uzten denean, ohikoa da goiko solairuak behera egitea apurren bat eta arrakalak sortzea. Legeak dio bizilagunek eskubidea dutela euren etxeetan obrak egiteko, beti ere obra horiek eraikinaren segurtasunari, estrukturarri eta kanpoko itxurari eragiten ez badiote eta beste bizilagunen eskubideei kalterik egiten ez badie. Obra egin aurretik, komunitateko presidenteari jakinarazi behar zaio lehendabizi, baina hala ere, ez jakinaraztea ez da isunarekin zigortzen. Hala ere, eta goiko bizilagunari kaltea eragin bazaio ere, zuk egin dituzun obra horiek ez daude legez zigortuta, etxe barruko trenkadak ez daudelako berez etxearen kargak jasateko, azkenerako karga hori jasan badute ere.</p> <p><b>Ondorioa: Komunitatearen ardura izango da forjatua aldatzea bere funtzioa egoki bete dezan eta ez dadin berriro halakorik gertatu.</b></p>
<p align="center">  <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b>              San Bartolome, 2         </p>	

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Beñat!**  
5 urte handi!  
Bihar ederki  
ospatuko dugu!  
Muxu bat etxeko  
guztionez partez.

Egunero  
elkarrekin hasi  
arren eguna,  
mihiluze batek  
esan behar izan  
zigun asteartean  
urtebetetze  
eguna zenuela.  
Zorionak,  
**Axular!** Ez  
kendu txapela,  
badator-eta  
santa eskea!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**Jaso nahiko al zenituzke  
ELGOIBARKO eta MENDAROKO  
berriak zure e-postan?**

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,  
sartu [barren.eus](http://barren.eus)-en eta  
egin klik 'Nor Garen' atalean.  
Bertan topatuko dituzue azalpen guztiak.



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### LG F4DV5009S1W ARROPA GARBIGAILU ETA LEHORGAILUA

**A T G B** (GARBITU)

**A T G E** (LEHORTU)

**629 €**



- Garbiketa-karga: 9 kg
- Lehortze-karga: 6 kg
- 85 x 60 x 56,5 cm  
(altuera x zabalera x hondoa)
- Alergien aurkako  
lurrunaren funtzioa du
- Zentrifugatze-abiadura: 1400 b/m
- Wifi bidezko SmarThinQ arroparen ehunen ezaugarriak  
detektatzen dituen adimen artifiziala

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 20 BARIKUA

**17:00 eta 19:00** Antzerkia: 'Urteak bete, abenturak bizi'. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ikuskizun berria taularatuko dute Herriko Antzokian.

**19:00** Zine foruma: 'La directora de orquesta'. Haizeak antolatuta, Lilan.

## 22 DOMEKA

**9:30** Mendi irteera: Xoxotera. Morkaikok antolatuta, Ikastola eta Herri Eskolarekin. Mintxetako aparkalekuan batuko dira.

## 25 EGUAZTENA

**19:00** 'Epeletan' literatura tailerra: Iñigo Martinezen *Mandamentu hipermodernoak* liburua landuko dute.

## 26 EGUENA

**19:00** Isiltasun Eskola. Kultur Etxeko sotoan.


## 27 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Trash'. Yllana konpainiak taularatuko du, Herriko Antzokian.



### *Natividad Zulaika Basterra*

2023ko urtarrilaren 13an hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I.URTEURRENA

### *Dolores Zubiaurre Azpiazu*

2022ko urtarrilaren 24an hil zen, 87 urte zituela.

***Amama maittia,  
gure artetik jua ziñala bada urtebete.  
Badakizu zuk ondo  
zenbat zinttugun estimatzen!  
Faltan zure deiak  
eguneko gorabeherak kontatzen.  
Eskerrak Kai eta Lara bidali ziguzuzen  
ari gera hutsunia pixkanaka betetzen.  
Aitxitxa ta zu oso presente zaittuztegu  
gure txikixak hezten.***

Etxekoak



## Zinea



## 'Avatar'

21 zapatua: 19:00 / 22:15  
 22 domeka: 19:00  
 23 astelehena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

## URTARRILA

20 BARIKUA  
 21 ZAPATUA  
 22 DOMEKA  
 23 ASTELEHENA  
 24 MARTITZENA  
 25 EGUAZTENA  
 26 EGUENA  
 27 BARIKUA

## Egunez

■ Fernandez  
 Yudego  
 Yudego  
 ■ Oruesagasti  
 Barrenetxea  
 ■ Ibañez  
 Garitaonandia  
 Arriola

**2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**


■ Fernandez:  
 Herriko Enparantza,4  
 Garagartza (Mendaro)  
 943 756 142

■ Ibañez:  
 Rekalde, 1 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9 (Soraluze)  
 943 751 384



**%25**eko beherapena  
 edozein izara  
 eta mantetan!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

HEGO EUSKAL HERRIA  
 ETA ESPAINIA:

**35 €**

Elgoibarko Izarrako  
 bazkideek:

**28 €**

IPAR EUSKAL HERRIA  
 ETA EUROPA:

**49 €**

Elgoibarko Izarrako  
 bazkideek:

**38 €**

EUROPATIK  
 KANPO:

**62 €**

Elgoibarko Izarrako  
 bazkideek:

**50 €**

### Urtarrilaren 27an kobratuko dugu.

Eskuz ordaintzen duzuenok Elgoibarko Izarrako bulegora etor zaitezket  
 (Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3- ezk.) edo kontuan egin ordainketa.  
 Harremanetarako: **943 744 112** edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)





Manu Sanchez



# ETXE BERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

## .....Osasun gida.....

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar

943 531 953  
669 565 745

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
943 740 359

Deba  
943 192 192

**Jeku edero**  
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

federópticos  
**ikus**

RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**aldaz**  
hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Tarbio Etxebarria, 22  
Elbar

677 551 850

**fisioSmás**  
Fisioterapia aurroratua eta  
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13

943 740 191 / 667 959 698

[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

RPS 177/12



**ejaj**  
**PNV**

ELGOIBAR



# ELKARRIZKETAN


**AITOR ESTEBAN BRAVO**

EUSKAL TALDEAREN Bozeramailea  
Diputatuen Kongresuan

**ELGOIBAR**

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian  
Urtarrilaren 23an, 18:30ean

**Baduzu galderarik Aitorrentzat?**

Idatzi: [elgoibareaajpnv@gipuzko.eus](mailto:elgoibareaajpnv@gipuzko.eus)  688 825 183  
edo eskaneatu kodigoa eta egin zure galdera

